

# “Navarrismo” euskaltzalea

Iosu Arraiz Muñoz  
Ikerlaria

Iñaki Iriarte  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa.  
Soziologia Saila

Azken 25 urteotan “navarrismoa” bihurtu da ideología nagusi Nafarroan. Jakina denez, higikunde honek euskal batasunaren gaitzespenean du bere oinarrizko leloa. Hala ere egileek garrantzi handiko sentimendu euskaltzalea aurkitu dute hasierako navarrismoan.

During the last 25 years, “Navarrism” has turned to be the dominant ideology in Navarre. This political tendency has converted the reject of the “Basque-Navarre” unity into one of its fundamental arguments. However, before 1936, writers contrive the existence of an important “basquist” tendency within the “Navarrism”.

«Para un navarro la negación de lo vasco supone ignorar nuestras raíces más profundas.»

Jaime Ignacio del Burgo (1979: 29)

Gaur egungo Nafarroan *antivasquismo*-aren sentimendua edo, behintzat, euskalduna ez izatearena oso hedatuta dago. Hain zuzen erraten ahal da euskal nortasunaren ukapen hori oinarritzko osagai bihurtu dela herrialdeko diskurtso hegemonikoan. Trantsizio demokratikoa bitartean, Nafarroako euskaltasunari buruz eta bere eranspenaz euskal erakunde autonomo bati buruzko gaurko posizio politikoak mugatu zirelarik, jarrera *antivasquista-k nafarzaletasuna* izena (*navarrismo* delakoa) hartu zuen. Hitza erabili izan zen gutxienez mendearen hasieratik, baina ez asko eta ezta Nafarroa bakarraren babesia adierazteko ere, hau da, Euskal Herrikit banandua. 1910 inguruan, esate baterako, Campionek aipatu zuen Hermilio de Olorizten *navarrismoa* (Campión, 1985: 243). Hogei urteren buruan, 1934an, karlista batek, Solanak, eman zuen hitzaldi bat Iruñean “*Tradicionalismo igual a navarrismo*” izenburuarekin. Baino oraindik ere *navarrismo* hitzak hertsiki erran nahi zuen nafarzaletasuna, eta inolaz ere ez antieuskalduntasuna.

### XIX. mendeko *navarrismoa*

Nondik dator orduan gaurko *navarrismo-a*? Non daude haren erroak? Erratzunak ez dira batere bakunak.

Tentagarria izan liteke navarrismoaren sorburua 1867 aldean jartzea, hegoaldeko nafar politikari batek, Escudero y Marichalarrek, anonimoki *Laurac bat* liburuxka argitaratu zuenean. Urte hartan nafar Diputazioak antolatu zuen Iruñean nekazaritzako erakusketa bat, hiru euskal diputazioak gonbidatuta. Ekimenak lau hego herrialdeen arteko harremanak sendotzeko politikaren parte osatzen zuen. Hortxe kokatu behar ditugu baita bertze ekimen batzuk ere: euskal unibertsitatearen egitasmoak eta euskal-nafar zoroetxearena, besteak beste.

Nekazaritza-erakusketaren arku batean ezarri zituzten “*Laurac-bat*” leloa eta lau herrialdeetako armariak baturik. Escudero y Marichalarren ustez leloa erabat ezegokia zen. Escuderok galdetzen zion bere buruari zertarako etorri ziren euskal ordezkarriak, kortesiazko bisitaldia egiteko ala nolabaiteko euskal-nafar batasuna adierazteko. Lehenengo kasuan ongietorria ematen zien. Euskal-nafar batasuna bultzatu nahi bazuten, bere herrikideei Nafarroa eta hiru probintzien arteko diferenciak gogoratu nahi zizkien: «nuestros fueros y leyes son distintos, nuestras costumbres en su mayor parte desiguales, nuestros intereses encontrados.» (1867: 2).

Euskaldunek eta nafarrek badute forurik. Ados –idazten zuen Escuderok–. Baino kasu bakoitzean “forua” hitzaren erranahia guztiz desberdina du: «ellos sólo tienen y han tenido fuero en lo administrativo, nosotros fueros y leyes para lo político, lo administrativo y lo civil» (Ibid.).

Azken batean, jarraitzen zuen Escuderok, euskaldunak betidanik Castillaren mende egon dira. Nafarroa, berriz, erresuma burujabea izan da. Bakarrik 1512an eta itun baten bidez sartu zen Spainian. 1841ean Spainiak eta Nafarroak itun horren puntu batzuk aldatu zituzten. Etorkizunean, zioen Escuderok, ituna bakarrik konponbide komun baten bitarte aldatu ahalko zuten berriro.

Gainerakoan, jarraitzen zuen, euskaldunak ez ziren oso zintzo portatu izan Nafarroarekin. Esate baterako, Frantziarako trenarentzako bide egokiena eztabaidatzen ari zenean, gipuzkoarrek azpilana egin zuten nafar alternatiba oztopatzeko. Bestalde, amaitzen zuen Escuderok, nafar ardoek zerga gehiegi aurkitzen zuten hiru Euskal Probintzietan. Euskal produktuak berriz, libreki zebiltzan Nafarroa osoan zehar.

Badaude bertze agiri antieuskaldun batzuk XIX. mendearen bukaeran. 1875 urtean, gudari errepublikar eta foruzale nafar batek, Serafin Olavek, idatzi zuen *Reseña histórica y análisis comparativo de las constituciones forales de Navarra, Aragón, Cataluña y Valencia*. Haren azken orrialdeetan euskaldun eta nafarren arteko diferenciak azpimarratu zituen. Olaveren iritziz, vascongado-en interesak eta nafarrenak: «lejos de ser los mismos, se hallan completamente enfrentados» (Olave, 1875: 249). 1841etik, zioen, nafarrek bere foruak aldatu zituzten espiniar konstituzioari moldatzeko. Vascongado-ek, ostera, «contra todo derecho» (255), «se han mantenido hasta hoy en el goce de los verdaderos privilegios, muy onerosos para el resto de España, inclusa la Navarra, pues ni pagan contribuciones, ni dan soldados, ni dejan de utilizarse de todas las ventajas de los servicios públicos oficiales» (252-253).

1886an bertze antivasquismo kasu bat aurkezten ahal dugu. Urte horretan “Lau buru” izeneko egunkari “euskaroa” itxi zen. Aukera profitatuz egunkari arerio batek, *El Liberal Navarro* izenekoak, haren ideologia aztertu zuen. Honek zioenez, euskaroek hasieran bakarrik eman zioten babesa euskarari. Baino laster,

Se convirtieron en políticos y comenzaron a hablar de la patria euskara, y con absoluto desprecio de la historia, de la legislación, de las costumbres, del clima, de las producciones y de todo, supusieron una patria común las tres provincias vascongadas y Navarra, haciendo caso omiso de la Rioja, del Alto Aragón y de la parte septentrional del Pirineo hoy francesa y hace tres siglos Navarra [...] (1886.8.22: 1).

Egunkari liberalaren arabera, euskal batasunaren proposamenak oso arreta guti lortu izan zuen Nafarroan. Hau arrunta omen zitzaien, antzinako erresuma eta vascongado-en artean hagitz onura eskasak baitzeuden.

¿Porqué [sic] sólo quería unirse a las provincias vascongadas, cuando éstas hace seis siglos se separaron de nosotros, nos han hecho muchas veces la guerra, han sido siempre el mejor baluarte del poder castellano contra el navarro y ostentan timbres que llaman gloriosos, en desdoro de los navarros? ¿Por similitud de lenguaje? Esto no es absolutamente cierto, pues la mayor parte de Navarra ha usado desde siempre una lengua arromanzada, derivada del latín, tan antigua como la castellana, con la que se ha fundido (*Ibid*).

Nahiz eta ez aipatu, egunkari liberalaren argudioek maiz gogorarazten dituzte Escuderorenak. Esate baterako, Nafarroa erresuma burujabea izan zela errepiatzen du eta “Provincias Vascongadas”, berriz, Gaztelaren mende egon zirela.

## Navarrismo berria eta Lizarrako Estatutua

Agiri horiek gorabehera, arras problematikoa da gaurko navarrismoaren iturburuak Escuderoren liburuxkaraino edo *El Liberal Navarro*-ren hausnarke-taraino lehenaratzea. Escuderoren foiletoa ia galdurik izan da duela gutxi arte<sup>1</sup> eta, antza denez, oso ondorio eskasa izan du. Liberalismoari dagokienez, oso fama antifuerista izan du eta horren heinean eraginkortasun txikia nafar erregionalis-moarentzat. Olaveren liburua, berte aldetik, nahiko ezezaguna izan da.

Hain zuzen gaurko *navarrismoa* frankismo garaiko foruzaletasunaren oinordekoagoa bide da. Izan ere, Nafarroa baten irudikapen *españiarzale* eta erregionalista amorratua, jainkozale eta misiolaria, bere ohituren maitalea, orekatsua, lan-gatazkariak gabekoa, lasaia, bere Diputazioak ongi administratua, etab., *frankismo-tik* eta *aurrefrankismo-tik* dator. Urte horietan, afera dinasti-koetatik urrun, sortu zen nolabaiteko *foruzaletasun españolista*. Hala ere, *foruza-letasun* hori ez zen batere antieuskalduna. Alderantziz, erran ahal da Nafarroari euskal nortasun bat egotzi ziola.

Baieztapen horren aurka nafar eskuinaren jarrera aipa daiteke Lizarrako Estatutuaren kontra. Dena dela, kontuan hartu behar ditugu bi puntu. Lehenik nafar eskuinak ez zuela izan estatutuari buruz jarrera bakar bat. Honen inguruan gogora dezagun oso garantzi handiko eskuindar *españolistak* estatutuaren alde egon zirela, zenbait errezeloz iza arren. Aipa ditzakegu Joaquín Beunza, Miguel Gortari eta Rafael Aizpunen izenak, besteak beste. Joaquin Beunza nafar karlisten buruzagi nagusietako bat zen, Madrilgo gorteetan diputatua Errepublika osoan zehar. 1932an bere dimisioa aurkeztu zuen Estatutuaren nafar ukapenagatik. Bere aldetik, Miguel Gortari eta Rafael Aizpun diputatuak ziren Madrilen. Oso leku nagusia okupatzen zuten biek nafar eskuinean eta Aizpun 1933an ministroa izan zen zenbait hilabetez *españiar* gobernuan.

Bestalde, kontuan hartu behar da Estatutuaren kontrako jarrerak ez zuela erran nahi euskal nortasunaren gaitzespena. Hain zuzen Estatutuaren aurkakoen nagusiak euskaltzale zintzoak ziren. Hau frogatzeko hurrengo orrialdeetan bilduko ditugu haien zenbait aburu eta adierazpen.

Guztiz ezaguna da *Diario de Navarra*-ren betebeharra Trantsizio aroan euskal batasunaren kontrako iritziaren eraketa. 1932an ere oso leku funtsezkoa okupatu zuen Euskal Estatutuaren ukapenean. Hala ere ez zegoen, behintzat teorioki, euskal batasunaren aurka. Horrela, Estatutua onartzeko Iruñeko batzarraren egun berean, *La Voz de Navarra*-k egindako akusazio batzuei ihardestean, *Diario*-k aitortzen zuen *Españiar* ideia babesten zuela,

Pero siempre también, ¡siempre!, y podríamos llenar diez periódicos con textos sacados de nuestra colección, hemos defendido y seguiremos defendiendo con el mismo entusiasmo, con el mismo ardimiento, con el máximo amor, la Unidad cordial, la Unidad fraternal, que vale más que la Unidad política, con nuestros hermanos de las Provincias Vascongadas. ¡La fraternidad amorosa y alegre en Euskal Erría! [...] Esa fue y será siempre, siempre, la actitud de Diario de Navarra (1932. 6. 18: 1).

---

1. Eskertzen diogu Santiago Leoné jaunari liburuxkaren berri ematea.

Biharamunean, nafar ordezkarien boto ezezkoaren berri izan ondoren, *Diario de Navarra*-k gogoratzen zien euskal alkateei «[...] que una discrepancia formal en materia política no amenga el amor fraternal a nuestros hermanos en Euskal Erría» (1932.6.21: 1). Egia da zalantzan jar dezakegula adierazpen hauen zintzotasuna. Honi dagokionez, Manuel Azañak, Errepublikaren presidenteak, *Diario de Navarra*-ko zuzendariarekin, Raimundo Garcíarekin, izandako elkarritzeta baten berri ematen digu. Azañaren arabera, Garcíak aholkatu zion: «El más grave error político sería favorecer la unidad política de las Vascongadas y Navarra» (Azaña, 1978, I: 132).

Zalantzariak gabe erran ahal da Víctor Pradera izan zela Estatutuaren kontrako kanpainaren antolatzaile nagusia. Pradera karlismora itzuli zen arrestian, Vázquez de Mellaren zatiketan parte hartu ondoren. Ororen gainetik espanyiarra eta katolikoa zen, baina bere burua euskalduntzat jotzen zuen. Behin eta berriro, baita Estatutuaren aurkako kanpainaren garaian ere, Praderak Nafarroa Euskalerrian sartzen zuen edo, berak erraten zuen moduan, *Vasconia*-n. Praderaren ustez, jelkideen Euskadiak *Vasconia* akatuko zuen. Honi buruz oso argigarriak dira 1922an Esپainiar Gorteetan esan zituen hitzak.

Entre los señores de la minoría regionalista podrá haber alguien que ame tanto como yo a Vasconia; más que yo, no; y ello con una ventaja para mí: que yo amo a Vasconia tal y como ella es, que yo amo a Vasconia en su personalidad histórica cierta, y ellos no; la aman con un amor ideológico, con un amor condicional, habiendo forjado un ente de razón al cual llaman Euzkadi, ese monstruoso Euzkadi que no ha sido jamás nuestra querida Euskaria (Pradera, 1945: 312).

Praderaren iritziz, euskal herrialdeak Espainiako batasunarekin<sup>2</sup> bakarrik batu ziren. «La única verdad es ésta: no fuimos pueblo hasta que nos hemos echado en los brazos amorosos de España» (1945: 334). Egia historiko honen aurka jeltzaleek asmatu izan zuten “el monstruoso Euzkadi” (Pradera, 1917: 42). Haren ustez, bizcaitarren (hau da, jeltzaleen) batasunerako ahaleginen atzean Bilboko oligarkiaren azpilana ezkutatzen zen. Haren xedea Bizkaiaren mesederako Euskal Herri osoa menderatzea zen.

¿Es que creéis que, porque el pueblo asimilista hablase nuestra propia lengua, habríamos de tolerar, nosotros, los navarros, ser asimilados a Vizcaya, o es que creéis que el pueblo de Guipúzcoa y el pueblo de Álava, con una personalidad total y completa, habían de consentir, porque se les asimilaba a quienes hablaban la misma lengua, quedar asimilados a Vizcaya? (1945: 322).

Horrexegatik, abertzale izateagatik, Praderak Estatutuaren aurka ekin zuen. Zioenaren arabera Lizarrako Estatutu horretan soilik gelditzen zen «lo que no es ni Dios ni Fueros, ¡Euzkadi! La miserable intrusa que ha dividido irremediablemente a los vascos» (1932: 1).

Eladio Esparzaren kasua Praderaren antzekoa da. Esparza *La Voz de Navarra* egunkari abertzaleko zuzendaria izan zen 1920ko hamarkadan. 1931n, ostera, *Diario de Navarra*-n sartu zen idazlari buru gisa. Leku honetatik Euskal Estatu-

---

2. Jakina, Praderak Ipar Euskal Herria “ahazten” zuen.

tuaren amorruz borrokatu zuen. Gero, 1936ko Altxamendu militarraren alde egin zuen eta frankismo garaian oso kargu garrantzitsuak izan zituen.

Zenbait nobelatan Esparzak kontatzen du bere desengainua nazionalismoarekin. Esate baterako, *La Dama del Lebrel Blanco*-n bere protagonisten laguntzaren bidez idazten du:

[...] nosotros somos vascos, quizás los únicos vascos puros de toda Vasconia. Pero no somos políticos. Políticamente Vasconia no ha sido nunca nación y hoy menos que nunca. Pero a nosotros eso nada nos importa. Lo esencial es ser vasco, bien dentro de España, como nosotros, bien dentro de Francia, como los ultrapirenaicos (Esparza, 1930: 197).

Esparzaren iritzi politikoak konprentzeko guztiz argigarriak dira *Diario de Navarra*-n egunero idatzitako idazlanak, “Postales” izenburukoak. 1931.7.19an idatzitako batean ondokoa galdetzen dio bere buruari:

Los navarros somos vascos porque en esa raza nos forjó la naturaleza. Pero la aspiración a ser cada vez más navarros, ¿implica la desaparición de los elementos raciales? (1931a: 1).

Esparza, lesakarra eta euskalduna, beldur zen betiko euskal herrialdeak Estatutuko Euskadin desager zitezen. Horregatik euskal batasuna lortzeko bertze egitasmo bat zeukan.

Navarra con su Estatuto, sacado de su médula foral; Álava, Guipúzcoa y Vizcaya, también cada una con el suyo. Y después, obtenidos sus reconocimientos por el Estado, ante la mutua solidaridad y la mutua y cordial insistencia, podían en uso de sus francas libertades, concertar una federación, una hermandad, una mancomunidad [...]. Así llegábamos a la meta, sin perder la integridad de cada una de las regiones (1931b: 1).

Bistan da, Esparzak nolabaiteko euskal anaitasunean sinisten zuela. Hein batean bere burua vasquistatzat jotzen zuen:

Yo entendía por vasquismo el deseo, el afán, el gusto de reintegrarnos a lo vasco, de hacernos vascos, si no lo fuimos, y de volver a hacernos, si dejamos de serlo, o sea, de cobrar o recobrar una especial fisonomía que, por vínculos de sangre, es nuestra (1932: 1).

Rodeznoko Kondea izan zen Euskal Estatutuaren bertze aurkari importante bat. Rodeznok oso kargu funtsezkoa bete zuen karlismoaren baitan. 1936an egundoko laguntza eman zion Molari eta, honi esker, 1937an Francoren ministro izatera heldu zen. Azkenik, 1940tik 1949ra diputazioko presidenteordea izan zen. Lehen aipatutakoetan bezala, Rodeznok zenbait adierazpenetan Nafarroa Euskal Herrian sartu zuen. Esate baterako, 1909ko *Los Teobaldos de Navarra* bere liburuan dio Nafarroa eta Vascongadas badirela «regiones hermanas y ligadas a nuestro reino por unidad de raza, lengua, territorio y tradición» (Domínguez Arévalo, 1909: 31).

Bi adibide gehiago emanen ditugu. Esteban y Chavarriarena eta Francisco Javier Arvizurena.

Esteban y Chavarriaren izena ezezaguna da gaur nafar gehienentzat. Hala ere fustiñanar hau nahiko famatua zen 1920ko eta 1930eko hamarkadetan. Aro hartan idazki ugari sinatu zuen *La Avalanche-n* eta bertze agerkari eskuindarretan. Esteban y Chavarriá Lizarrako Estatutuaren aurka zegoen eta, jakina, 1936ko Altxamendua amorruz txalotu zuen. Halere bere euskalzaletasunaz erabat harro zegoen. Horrexegatik euskarritu zuen 1922ko Eusko Ikaskuntzaren Kongresua. Zioenaren arabera, honetan «la identidad de raza de los vasconavarros aparecerá como indiscutible» (Esteban y Chavarria, 1920: 154).

12 urteren buruan, 1932an, Estebanek bere burua «enamorado de la unión con las hermanas Vascongadas» (1932: 130)<sup>3</sup> aitortzen zuen. Hala ere Lizarrako Estatutuaren aurka zegoen. Zergatik?

[...] no por desamor a Vasconia, que mucho quiero, sino porque el amor a Navarra me lleva a desearla actuando en la vida nacional tal como nos la han transmitido la tradición y la historia (1931: 259).

Esteban y Chavarriaren ustez Lizarrako Estatutuak Nafarroa Estatu Errepublikarrarekin lotzen zuen. Gainerakoan, Nafarroa eta Estatuaren arteko itun zuzenen ukapena ekarriko zuen. Azkenik, Euskal Estatutuak zekarren “reintegración foral plena” delakoen errefusa.

Franciso Javier Arvizuren arrazoia eta Estebanenak parekagarriak ziren. Arvizu y Aguado Iruñeko azken alkate monarkikoa izan zen eta ospe itzela zeukan herrialde osoan. Arvizuk Lizarrako Estatutuan «un fondo de sospechoso desamor a España» (Arvizu, 1953: 115) aurkitzen zuen eta horregatik arbuiatzen zuen. Halere ñabartzen zuen arbuiaketa hori bazela, «sin mengua del sincero, entrañable afecto que por afinidades de raza, identidad de creencias religiosas y convivencia histórica, que une a Navarra con las Vascongadas» (ibid.).

### Bertze adibide batzuk

Aipatutako adierazpen eta jarrerak ez dira batere anekdotikoak. Hain zuzen nolabaiteko euskalzaletasun kulturala nagusitu zen nafar eskuin espanolistan, behintzat 1936a arte. Gisa honetan José Ramón Castro<sup>4</sup> (idazle tuterarra), Baldomero Barónek<sup>5</sup> (*Diario de Navarra*-ko laguntzailea, frankismoaren poeta), José Mª Huarte<sup>6</sup> (Nafar Artxiboko zuzendarria), Onofre Larumbek<sup>7</sup> (apaiza eta *Diario de Navarra*-ko laguntzailea), Joaquín Beunzak<sup>8</sup> (aipatutako buruzagi karlista), Justo Garránek (politikari kontserbadorea), etab., Nafarroa Euskal Herriaren barnean

3. «Todos vemos con satisfacción que Navarra y Vascongadas son dos regiones hermanas cada vez más unidas por los lazos de la fraternidad y la simpatía» (Ibidem).

4. Ik. Castro, 1934. Behin eta berriz deitzen dio “nuestro país” Euskal Herriari.

5. Ik. Barón, 1935: orrialde-zenbakirik gabe. Galdetzen die nafarrei eta gipuzkoarrei: «¿no somos hijos de una misma raza?, ¿no somos brotes del mismo árbol de la estirpe vasca?».

6. Ik. Huarte, 1925. Testu honetan Huartek garbi uzten du Nafarroa Euskal Herria dela.

7. Ik. Larumbe, 1924: 123. «esta hermosa Euskalerria de nuestros amores».

8. Ik. *Diario de Navarra*, 1927.3.10. “Conferencia del Sr. Beunza”, Gipuzkoar Ateneoan: «Nosotros, los vascos, somos más antiguos, porque nosotros no datamos».

kokatu zuten. Haietariko asko Eusko Ikaskuntzako kideak izan ziren (Estornes, 1983: 60-65)<sup>9</sup>. *Diario de Navarra*-k berak, gaur egun egunkari navarrista amorrotua denak, bere kexak azaldu zituen 1918an nafrar Diputazioa –«la más alta jerarquía de Euskalerría» (*Diario de Navarra*, 1918.13.9)– Eusko Ikaskuntzaren lehendabiziko Kongresura ez joateagatik. Bi urte pasatu eta gero, erakunde honen bigarren Kongresuaren aurrean azpimarratzen zuen:

Los navarros tenemos el deber y el derecho de colaborar en esta obra de una manera muy principal, porque nuestra tierra fue la tierra de los baskos, porque de esta tierra nuestra se nutrió y en ella creció y de ella se propagó la vieja raza euskalduna (*Diario de Navarra*, 1920.8.18.).

Nahiz eta 1936. urteaz geroztik adierazpen euskaltzaleak eskastu egiten diren navarrismoan, ez dira halere batere bitxiak. Aipa dezagun zenbait adibide.

Manuel Iribarren Paternáin oso nobelista ospetsua izan zen frankismo garaian. Falangista izan arren bere idazlanetan maiz kokatu zuen Nafarroa Euskal Herrian barne. Esate baterako, *Navarra. Ensayo de biografía* (1956) eta *Una perspectiva de la Guerra en España* (1941) liburueta. Azken honetan ohartarazi zien euskaldunen aurka mintzo zirenei «que también los navarros somos vascos» (Ibid: 91).

Julio Gúrpidek frankismoaren propagandarentzat garrantzi handiko bi libu-ru idatzi zituen, biok izenburu berarekin: *Geografía e historia de Navarra* (1944a; 1944b). Biak hagitz zabalduak izan ziren Nafarroako eskoletan eta hauei esker “Olave saria” jaso zuen. Bitxia bada ere, biek Nafarroa Euskal Herrian sartzen zuten (Ibid: 24, 112, 137).

Bertze idazle frankista eta foralista askok gauza bera egin zuten: Dolores Baleztena (1958), Fermín García Ezpeleta (1943)<sup>10</sup>, Francisco López Sanz (1966)<sup>11</sup>, José Javier Uranga Santesteban (1976; 1980)<sup>12</sup>, etab. Are bitxiago, Federico García Sanchizek idatzitako liburu batean, *Navarra-n* (1943), Nafarroa españiarzale eta antirrepublikanoaren omenez, zabal-zabal deitzen die nafarrei euskaldunak.

## Konklusioak

Francoren heriotzaren ondoren nafrar eskuinaren euskalztaletasun hori dagoeneko desagertuta zegoen. Behin arazorik gabe onartutako euskal nortasunak orain guztiz susmagarria eta are arbuiagarria zirudien.

9. Erroldan sartu behar ditugu hurrengo izenak: José M<sup>a</sup> Lacarra, Luis Oroz Zabaleta, José M<sup>a</sup> de Huarte, Ignacio Baleztena, Joaquín Beunza, Alejo Eleta, Serapio Huici, Francisco Javier Arraiza Baleztena, Víctor Pradera, Julio Ruiz de Alda, José Luis Arrese, Rafael Aizpún eta Justo Garrán.

10. «En los montes del país vasco, particularmente en las fragosidades de las sierras navarras [...]» (Ibid: 200).

11. Nafar foruei “euskaldunak” deitzen die.

12. «En medio Euskalerría, una tierra nuestra, distinta de Reino a Provincia, de valle a valle, de pueblo a pueblo, pero con mucho de entendimiento, amor y comunidad» (1976: 32). Zenbait urte geroago Olarrak baiezten zuen Nafarroa zela «parte fundamental del pueblo vasco». «Es más, yo diría que Navarra es, casi por sí sola, el pueblo vasco» (1980: 28).

Trantsiziotik hona jarrera antieuskaldunak gogortu egin dira. *Navarrista* gehienetan ustez Foru Komunitatea eta Euskal Herria lurrealde erabat desberdinak dira. Euskaltzaletasun ororen atzetik *navarrista* horiek euskaldunen gose “anexionista” aurkitzen dute. Noiz, nola eta zergatik gertatu zen oinarrizko aldaketa? Galdera oraindik erantzunaren zain dago.

## Bibliografía

- Anderson, B. (1993): *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, F. C. E., Mexiko D. F., 1993.
- Andrés-Gallego, J. (1982), *Historia Contemporánea de Navarra*, Ediciones y Libros, Iruñea.
- Arbeloa, V. M. (1978): *Navarra ante los estatutos: introducción documental (1916-1932)*, Ediciones y Libros, Iruñea.
- Arvizu, F. J. (1953): *Elementos de Historia de Navarra y su régimen foral*, Ed. Aramburu, Iruñea.
- Azaña, M. (1978): *Memorias políticas y de guerra*, Crítica, Bartzelona.
- Baleztena, D. (1958): *La Casa. Novela*, Gráficas Gurrea, Iruñea.
- Baron, B. (1935): “Donostiarras y Pamplonicas” in *Navarra en Guipúzcoa*, 3 z.
- Burgo, J. I. Del. (1979): *Navarra es Navarra. Tres años de lucha en defensa de nuestra identidad*, Graficas Irujo, Iruñea.
- Campión, A. (1985): “Hermilio de Olóriz”, *Obras completas (XV)*, Mintzoa Liburuak, Iruñea, 243-251.
- Castro, J. R. (1934): “La pintura en Navarra en el siglo XVI”, in *R. I. E. V.*, XXV. liburukia.
- Domínguez Arévalo, T. (1909): *Los Teobaldos de Navarra. Ensayo de crítica histórica*, Nueva imprenta de San Francisco de Sales, Madril.
- [Escudero, C.] (1867): *Laurac-bat*, Imp. S. Bandrés, Iruñea.
- Esparza, E. (1930): *La Dama del Lebrel blanco*, Ed. Juventud, Bartzelona.
- \_\_\_\_\_, (1931b): “Postales”, in *D. N.*, 1931.8.1.
- \_\_\_\_\_, (1932): “Postales”, in *D. N.*, 1932.4.9.
- \_\_\_\_\_, (1931a): “Postales”, in *D. N.*, 1931.7.19
- Esteban y Chavarriá, J. P. (1932): “Por la autonomía regional”, in *La Avalanche*, 891 zk., 130.
- \_\_\_\_\_, (1920): “El congreso de Estudios vascos y la verdadera personalidad de Navarra”, in *La Avalanche*, 697 zk., 154.
- \_\_\_\_\_, (1931): “Nuestro Estatuto”, in *La Avalanche*, 875 zk., 259.
- Estornés, I. (1983): *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- García Ezpeleta, F. (1943): *España Inmortal*, Ed. Afrodisio Aguado, Madril.
- García Sanchiz, F. (1943): *Navarra*, Ed. Aspas, Madril.
- Gúrpide, J. (1944a): *Geografía e Historia de Navarra. Lecturas-leyendas-tradiciones. Biografías de Hombres Ilustres de Navarra*, Ed. Iberia, Iruñea.
- \_\_\_\_\_, (1944b): *Geografía e Historia de Navarra. Lecturas-leyendas-tradiciones. Biografías de Hombres Ilustres de Navarra*, Aramburu, Iruñea.
- Huarte, J. M. (1925): “Juan de Anchieta. Sus retablos y los de sus discípulos”, in *Euskalerriaren Alde*, XV. liburukia.
- Inmann, F. (1997): *La invención de España. Nacionalismo liberal e identidad nacional*, Cátedra, Madril.
- Iribarren, M. (1941): *Una perspectiva de la Guerra en España (1936-1939)*, García Enciso, Madril.
- \_\_\_\_\_, (1956): *Navarra. Ensayo de biografía*, Ed. Nacional, Madril.

- Juaristi J. (1987): *El Linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Taurus, Madril.
- Larumbe, O. (1924): "San Miguel de Izaga", in *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos*, 1924.
- López Sanz, F. (1966) "Como se expresaron algunos políticos de fines y principios de siglo", in *Pregón*, 89 zk.
- Olave, S. (1875): *Reseña histórica y análisis comparativo de las constituciones forales de Navarra, Aragón, Cataluña y Valencia*, Imprenta, estereotipia y galvanoplastia de Aribau y Cª, Madril.
- Pasamar, G. (1991): *Historiografía e ideología en la postguerra española: La ruptura de la tradición liberal*, Prensas Universitarias de Zaragoza, Zaragoza.
- Pradera, V. (1917): *Regionalismo y Nacionalismo*, Imp. de "El Correo Español", Madril.
- \_\_\_\_\_, (1932): "Carta abierta", in *Diario de Navarra*, 1932. 6. 16.
- \_\_\_\_\_, (1945): *Obra Completa*, Instituto de Estudios Políticos, Madril.
- Solana, M. (1934): *Tradicionalismo igual a navarrismo*, Gráficas Vasconia, Iruñea.

*Egunkarietako sinadurarik gabeko artikuluak:*

- "El Lauburu", *El Liberal Navarro*, 1886.8.22.
- "La Actitud de siempre", in *D. N.*, 1932.6.18.
- "La Asamblea del domingo", in *D. N.*, 1932.6.21.
- "Ollarra" [Uranga, J. J.], "Climas para el crimen", in *Diario de Navarra*, 1976.10.10., 32.
- "Ollarra" [Uranga, J. J.], "Euzcadi y los vascos", in *Diario de Navarra*, 1980.4.10., 28.
- "Saludo", in *D. N.*, 1920. 8.18. Eusko Ikaskuntzaren Kongresuari buruzko ale ezohikoa.